



## Eman hegoak euskarari



Iratxe Mugire barakaldarrak hiru urte behar izan ditu bere azken diskoari forma emateko. :: FERNANDO GÓMEZ

### ELKARRIZKETA

#### IRAITZ URKULO

# «Nire tokia taula gainean dagoela sentitzen dut»

**Iratxe Mugire Abeslaria.** 'La piel transparente' diskoa kaleratu du, gitarraren soinuaz lagundutako hamaika abestik osatua

Iratxe Mugire barakaldarrak (1984) 'Innis Fodhla' izeneko lehen diskoa kaleratu zuen 2002an.

Harrezkero, musikaren munduari lotuta jarraitu du. Une honetan, 'La piel transparente' lan berria aurkezten ari da. Autoekoizpenaren bidetik jo, eta hiru urte behar izan ditu diskoari forma emateko. Egileak berak euskaraz, gaztelaniaz eta galegoz konposatutako eta abestutako hamaika kanta. Nabarmentzekoak dira eskaintzaren soiltasuna eta ekoizpen zaindua, izan ere, Mugirek bi gitarren laguntza baino ez du behar bere ahots goxo garbia janzteko. Eta, halere, biluzik ageri da bere letratan, sakon eta zintzo. Merezitu du haren kontzertu intimoetako batera joatea... ezetz hunkitu gabe irten!

**–Zergatik erabaki duzu orain, lehen lana kaleratu zenuenetik hainbeste denbora pasatu eta gero, disko berri bat ateratzea?**

–Disko honen atzetik ibili naiz urte hauetan guztietan, eta momentu egokia eta baldintza egokiak batu direnean jaio da. Nigatik izan balitz, lehenago jaioko zen, baina urte

hauetako esperientziak eta ikasitako guztiak heldutasuna eman diote lanari, eta eskertzen dut.

**–Autoedizioaren bidetik jo duzu. Horrek askatasun osoa emango zizun, baina baita lan handia ere.**

–Hori da ordaindu beharreko prezioa. Saria, momentu oro nor bere obraren eta bere erabakien kontrola izatea da. Merezitu du. Baina oso erabaki kontzientea izan behar du, askotan latza delako; egunak hogeita lau ordu ditu, eta disko bat ekoizteko garaian denbora bi zatitan banatzen da: soldata bat bermatzen dizun lanbideari eskaintakoa eta inbertsio bat behar duen proiektu batean lan egitekoa. Horregatik luzatzen dira hainbeste honelako ekoizpenak.

**–Diskoa presarik gabe eta mizoz egindako lanaren emaitza da, ezta?**

–Hiru urteko proiektua izan da, nahiz eta abestiak alde

aurretik idatzitakoak ziren, bakoitza garai batean. Horietatik batzuk aukeratu nituen diskoa osatzeko. Astiro egin dugu aurrera, baina tinko, lanari eutsiz eta gelditu gabe.

### Norbait laguntzea

**–Zergatik abesten duzu? Zertarako? Norentzat?**

–Arimatik irteten zaidalako abesten eta idazten dut, neure buruari esan behar diodalako abestietan esaten dudana, neure buruaren kontzientzia hartzeko, mundua metabolizatzen denean ohartzen naiz badudala funtzio bat, eta hori oso handia da.

**–Nola definituko zenuke zure musika-estiloa?**

–Ez daukat definiziorik eta ez dut bilatzen, estilo bat bilatzen ez dudana bezala. Disko honetan kutsu ezberdin asko daude: country, rumba, folk, tex-mex... Baina, 'Hemeretzi primadera rock' abestia izan ezik, rock estilokoa dena argi eta garbi, abestiak ez dira ez bata ez bestea, euren esentzia mantentzen dute estilo bat baino gehiago nahastu arren.

**–Soiltasunaren eta doinu goxoan alde egiten duzu.**

–Gauzak kontatzeko modu bat da, eta oraingoan horrela egin dugu, instrumentu gutxirekin baina ekoizpen oso zain

**«Abesti guztiak ez ditut argitaratzen, abesti gehiago dago etxean kalean baino»**

duarekin, soinu garbia eta hurbiltasuna bilatuz. Doinu goxoz jantzirik, sakontasun handiko letrak daude, eta horiek ez dira beti hain goxoak...

**–Zeri buruz dihardute zure letrak?**

–Bizitzaz, zertaz bestela; neure buruaz, neure esperientziak eta eboluzioaz, neure ikasketek, munduarekin dudana harremanaz. Eta,aldi berean, hori guztia unibertsal da, beraz, nitaz dihardute, baina baita ni ez naizen horiez ere.

**–Euskaraz, gaztelaniaz eta galegoz abesten duzu. Transmittitzeko gaitasun berbera duzu hizkuntza guztietan?**

–Euskara eta gaztelania nire eguneroko hizkuntzak dira, eta galegoa ere hainbat urtez nire eguneroko bizitzaren parte izan zen. Abesti hauen hitzak nire bihotzetik irten dira, eta hizkuntza momentu haiek bakoitza ekartzeko bidea, garraibidea izan da. Ni hunkitzen nauena eta kontatzen

dudana autentikoa da, horregatik lortzen dut entzuleengana iristea, ez letren hizkuntzagatik.

**–Abestiak inspirazioaren emaitza dira? Ala konposatzeko metodo edo ohitura zehatzak dituzu?**

–Biak beharrezkoak dira, inspirazioa eta lana. Arimak hitz egiten du, zerbait kontatzeko gogo du eta indar handiz bultzaka hasten da; abestia jaiotzen denean, nolabait, indar horri konektatuta nago. Baina horren atzetik lan handia dago, momentu horren aurretik eta geroago. Abesti guztiak ez ditut argitaratzen, abesti gehiago dago etxean kalean baino. Eta abesti bat grabatuko dudala erabakitzen dudanean, asko zaintzen ditut konponketak, prozesua, grabaketa...

### Istorioak

**–Zein egoeratan eta zer aldarerekin entzuteko disko aproposa dela esango zenuke?**

–Auskalo! Bitxia eta ederra da jendeak kontatzen dizunean non, noiz eta nola entzuten duen. Nik esango nuke abestien istorioak liburu bat irakurtzen den bezala entzun behar direla, horiek ere istorioak direlako, eta disko hau soinu-kalitate onarekin entzun behar dela, detaile guztiez jabetzeko. Ekipo edo kasko on batzuekin entzunez gero, bestela hauteman ezin diren sakontasuna eta soinuak agertzen dira.

**–Zer sentitzen duzu taula gainean? Zein da unerik bereziena?**

–Taula gainean sentitzen dut hori dela nire tokia, nire bizitzako tokietako bat, behintzat. Jendearekiko magia hori, konexio hori sentitzen dudanean, neure bihotza ireki-tzeak besteengan eragina baduela ohartzen naiz, jendea hunkituta eta eskertuta ateratzen delako kontzertutik. Hori da oparirik handiena. Oso berezia da taldekideekin ezartzen den konexioa ere, askotan sinkronizatuta gaudela baitirudi, bat bestea hurrengo mugimendua asmatzen duelako.

**–Hurrengo pausoa zure musika Euskal Herritik kanpo ezagutaraztea izango da?**

–Bai, badut horretarako gogo, baina ideia ona iruditzen zait etxetik hasia.

**–Zein da disko honekin lortu nahiko zenukeen helburua? Baduzu amets jakinik?**

–Disko honekin tokia egin diot neure buruari musikan, eta musikari neure lehentasunean. Neure buruari esaten diot baietz, hau dela nire bidea. Nire ametsa bide honetan aurrera jarraitzea da, lanean, diskoak argitaratzen, kalitatea mantentzen eta jendea hunkitzen.